

Marrazki eta idazlan lehiaketen sariak banatu dituzte Elgoibarren

Elgoibar. Elgoibarko udal liburutegiak Mozarten flauta magikoa topatu dut izenburupean burututako XIII. Marrazki eta Idazlan lehiaketaren sari banaketari ekin zion atzo Itziar Gurrutxaga Bilboko Athletic-eko eta Euskal Selektioko jokalariairen partaidetzarekin. Guztira, 249 lan aurkeztu dira Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako lehiaketa honetara; 161 marrazki eta 88 idazlan, hain zuzen ere. Aurtengo irabazleak ondorengoak izan dira: lehen mailan, Mikel Elustondo; bigarren mailan, Pablo Luis Gómez; hirugarrenean, Goizeder Etxeberria; laugarrenean, Leire Castro; bostgarrenean, Jone Alvarez eta seigarrenean, Jone Makazaga.